

Bihotza, paper bolatxo birrindu soil bat



Axenario

Jatorrizko izenburua: *Poil de Carotte*

Egilea: Jules Renard

Itzultzailea: Itziar Otegi

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

KARLOS DEL OLMO

Axenario ez da, bestela badirudi ere, umeentzako liburu bat. Bestela esanda, haurrek ere irakur dezaketen eleberria da, baina ondo gogoan izanda amaren ohiko irudi topikoa jo eta errotik birrintzen duela, hezkuntza modu alderantzizko —eta erakargarriago (?)— bat aurkezten duela.

Argitaratu zenean egitura aldetik guztiz berritzaile gertatu zen eleberri honek ama autoritario eta gogo meharreko bat aurkezten du. Axola izan lezake argitzeak liburuak zenbateraino jasotzen dituen Jules Renarden beraren bizitzaren benetako jazokizunak, baina baliotsuago gertatzen da XIX. mendeko Frantziako nekazarien mundu zorrotz eta isilunez bete biziartzen diolako irakurleari. *Axenario* mende bete arinago Rousseauk paraturiko *Emilio* idealistaren ifrentzua delako.

Jules Renard gazte hil zen, 43 urte zituela, eta umore kostunbrista landu zuen idazle moduan barik, bizi zuen garaiaaren testimonio emaile nostalgiaz beteriko idazlari gisara bereganatu du frantziar idazleen konstelazioan.

Kazetari moduan berehala eskuratu zuen ospea, eta hari esker lortu zuen idazleak nekazari herri txikien giro itxitik alde egiteko giltza. Berehala izan zituen harremanak garai hartako sinbolista zaleen zuloetan Schwob, Gide, Claudel, Valery eta beste idazle esanguratsu batzuekin. Guztiarekin ere, berbera gorabehera, nekazaria zela eta betiko iraungo zuela lugin aldarrikatu zuen "isiltasunaren literaturaren" aitapontekoak.

Renarden literatur teknikak, batzuen aburuz, kazetaritza du sorburu —erru (?)—, itxuraz, haren liburu guztiak osatu baitzituen lehendik aldizkari eta bestelako argitalpenetan plazaraturiko txatalez. Latin zale porrokatua, klasikoen erretorikaren altxorra lepoan hartuta, Sartrek esan zuenez, sinbolismoaren bidezidorretatik galdu omen zen. Burges berrizale hark nostalgiatik eta mingostasunetik edan zuen ber neurrian.

Aditu batzuen iritziz, halere, Renardek ez zuen eleberririk idazten, gertaeren albuma osatzen zuen, baina eleberri bat ezin ei da gertaldi hutsez osatu, jazokizunak, berez, gauza hilak dira eta eleberriak bizitzaren arnasa erantsi behar die, gertaeren benetako muina aldatu behar baditu ere. Renard, guztiarekin ere, ondo jabetuta zegoen bere teknikaren ezaugarri berezietan eta, aldeztu zuenez, irakurleak berak eraiki behar du nobela, idazleak orriotan utzitako zatiekin, letra bidez emandako datuen bitartez. Jakina, kritikari batzuen aburuz, horrelako argudioak idazlearen beraren ezintasun teknikoaren zurigarriak besterik ez dira.

Itziar Otegi duintasunez eman du neurria literatur itzulpenean aurrez jarritako lehen deman, itxura batean simple diruditen esaldiek edo obrek nonahi ezkututzen dituztelako itzultzailearentzako amarruak.

Haren *Egunerokoan* jaso zuenaren arabera, Renard egiazalea zen oso, eta bere burua ez ezik, inguruko guztiak ere errukigabe kritikatu zituen, emazte baino salbu utzi ez zuelarik. Eta joera kritiko horrexek azaldu dezake, aldeaz, *Axenario* idazlanean halako familia modu sordiesa aurkeztu izana.

Idazkian aitak semeari aitortuko dio, azkenean, berak ere duela ama maite. Nonbait, aitorten horrek elkarrenagana hurbildu beharko zituen bi mundu isolatu (aita eta semea), baina horrexek ere ez du apurtzen pertsonaien bakardade lagundua.

Adierazi legetxe, kontakizuna gordin eta garratz gerta liteke zenbait umerentzat, baina inolako eskrupulurik ez badago gizartean ume-gaztetxoei bideo jokoetan edo Internet arakatzen orduak ematen uzteko garaian, zertan kezkatu horrelako lan bat haien esku "errugabeetan" jartzean? Azken buruan, idazleak berak idatzita utzi zuenez, "ez naiz egiatia ezta egiati ez naizela diodanean ere".